

CARLOS CABIDO
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

“Animalia exotiko bat aske uzteak beti dakartza ondorio ekologikoak”

Sugedorri bat Hondarribian barrena zebilela-eta, zalaparta sortu da berriki. Ondoren jakinarazi zuten gezurra zela. Ezerezean geratu da kontua, baina zer pentsatua ere eman du. Posible al da horrelako zerbait gertatzea? Eta zein ondorio izan ditzake? Animalien trafikoaren inguruan hainbat gako eman dizkigu Carlos Cabidok, Aranzadi Zientzia Elkarteke Herpetologia saileko zuzendariak.

TESTUA ETA ARGAZKIA | MALEN ALDALUR AZPILLAGA

Sugedorriarekin Hondarribian jazo den antzeko zerbait gerta al daiteke?

Bai, eta azken urteetan egon da antzeko kasurik. Duela pare bat urte Madrilen, ustez, kaskabel suge bat agertu zen parke batean. Gizon bat ospitalera joan zen esanez kaskabel suge batek hozkatu zuela. Larrialdietara joan zenean zein suge mota izan zen azaldu zuen. Ondoren jakin zen gizonak bere etxean zuela sugea eta, ilegalki zuenez, parkean gertatu zela esan behar izan zuela.

Terrariofiliaren kultura arduratsua al da, animaliak edukitzeko beha-

rrezko baimen eta araudiekin?

Ez. Dena den, denetarik dago, leku guztietan bezala. Badaude terrariofilo batzuk oso arduratsuak direnak eta animalia exotikoen zale izanik errespetuz jokatzeko dutenak. Baina jende asko dago hala egiten ez duena. Gainera, animalia exotikoei dagokienez, beti egon da oso usain txarreko merkatu beltz bat, eta azken urteetan gora egiten ari da.

Eta zein dira espezie exotikoak nahita askatzearen edo oharkabean ihes egitearen arriskuak?

Orokorrean, animalia exotiko bat aske uzteak beti dakartza ondorio ekologikoak. Izan ere, ez derrigorrez baina animalia horiek inbaditzaileak izan daitezke. Horrek aldatetarik sortzen ditu naturan eta bertako espezieak kaltetzen ditu.

Hondarribiko sugedorriaren kasuan, asko hitz egin zen jendearengan sorzitzakeen kalteez, baina espezie exotiko batek zein eragin eduki ditzake bestelako alorretan?

Hondarribiko kasuan ez zegoen arrisku handirik, espezie exotiko tropikala delako sugedorria eta espezie tropikalak oso gutxitan egokitzen dira gure klimara. Ziurrenik ez zukeen eragin ekologiko

handirik izango, baina beste espezie batzuen kasuan bai. Zientzialari askok aldarrikatzen du espezieen zerrenda zuriak egitea, eta ni ere horren aldekoa naiz. Izan ere, orain arte zerrenda beltzak soilik existitzen dira. Zerrenda beltzean inbaditzaileak diren espezieak ageri dira eta horiek ezin dira komertzializatu. Inbaditzaile izendatzeko, aurrez zerbait inbaditu behar dute eta gaur egun potentzialki inbaditzaileak diren animaliak salerosten dira, oraindik ezer inbaditu ez dutenez ez daudelako debekatuta. Horregatik diot, onurak ekarriko lituzkeela alderantziz egiteak: zerrenda zuri bat egin, soilik komertzializatu daitezkeen espezieekin.

Terrariofiloak ba al daki zein arrisku dituen espezie hauek askatzeak edo ihes egiteak?

Zaila da jakiten. Gaur egungo arazoa da edozer bihurtzen dela moda. Terrariofilia garai batean gutxi batzuen zaletasuna zen; etxean maskotatzat narrasti eta anfibioak zituzten *friki* batzuen. Informazio ugari izaten zuten zaletasun eta animalia horien inguruan. Orain, aldiz, bogan dago eta edozein hiriburutan saltzen dituzte, mundu guztiak ditu eskuragarri. Hori dela-eta, askok ez daki etxean

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 · www.sigacus.com

animalia hauek edukitzeak dakartzan arriskuak zeintzuk diren, ezta hauen zainketak zein lan eskatzen duen ere. Espezie exotikoak ez dira txakur bat edo katu bat edukitzea bezala, ez dituzte gu-rekin harremanak garatzen. Jende askok politak direlako bakarrik erosten ditu, eta gero berehala aspertzen dira.

Askatutako animaliei dagokienez, zeintzuk izan dira orain arteko kasurik esanguratsuenak eta non gertatu dira?

Aipatu dudan Madrilgo kasua nabarmen-tzekoa da, suge pozoiduna zelako, baina asko izan dira animalien askatzeak, nahiz eta gehienak hil egin diren, klimara ongi ez egokitzeagatik. Kasurik aipagarrien artean, adibidez, dortokena dago. Askotan askatu diren animaliak dira eta oraindik ere asko askatzen dira. Kalte handiak eragin dituzte. Berdin gertatzen da arrain espezie ugariarekin ere. Kanariar Uhartetean, esaterako, ohikoa da ur putzuetan arrain exotikoak haztea gero saltzeko. Horri lotuta, asko kezkatzen nauen beste kontu bat bildumazaleena da.

Zein neurri hartu daitezke terrariofiloek eta bildumazaleek sortu ditza-keten kalteak gutxitzeko?

Lehen neurria arautzea izango litzate-ke eta horretarako zerrenda zuriarena urrats bat da, ezinbestekoa delako po-tentzial inbaditzailea duten animaliak zeintzuk diren aurrez jakitea eta horien salerosketa debekatzea.

Terrariofiloak nola hartuko luke neurria?

Puntu bateraino positibotzat joko lukeela iruditzen zait. Bildumazaleei dagokie-nez, uste dut sarri ez dela zaletasun osa-suntsua, nolabait utilitarista dela. Izan ere, terrario-filo bildumazaleari ez zaio gustatzen animalia bere habi-tatean ikustea, gus-tatzen zaiona berak edukitzea da. Eta ho-rrek izan ditzakeen onu-ren inguruan zalantzak ditut.

Onura bakarren bat agian edukiko du, esaterako jendeari fobiak gainditzeko balio dio animalia hauek aurrez aurre ikusteak. Hala ere, ez dakit onurek kal-teek adina pisua duten.



PROPERTZIO HILGARRIAK. AFRIKAN SALEROSKETARAKO HARRAPATZEN DITUZTEN 100 ANIMALIATIK HAMAR BAINO EZ DIRA BIZIRIK IRISTEN.

Terrariofilia gora egin duela adierazi duzu.

Bai, interneten aroa iritsi zenetik asko hazi da. Egun, askoz errazagoa da salerosketa, baita informazioa lortzea ere. Interneten, ani-maliarik exotikoenaren zaintza prozesua zein den aurkitu dezakezu klik bakarrean.

“

Terrariofilia garai batean gutxi batzuen zaletasuna zen eta informazio ugari zuten animalia exotikoen inguruan. Orain, aldiz, bogan dago eta mundu guztiak ditu eskuragarri

Munduko zein herrialdeetatik ekar-tzen dira espezie exotiko gehien?

Gehienak tropikalak dira. Australia izango litzateke salbuespena, han bereziki zorrotzak baitira arau-diarekin, bai animaliak herrialdetik ate-ratzeko, baita sartzeko ere. Gainerako herrialde gehienetan bi aukera egoten dira, naturan harrapatzea edo gatibu-tasunean haztea. Azken hori litzateke

jasangarriena. Naturan harrapatzea debekatuta dago Europan, baina Hego Amerikan, Asiako herrialde batzuetan edo Afrikan baimenduta dago. Eta he-rrialde horietan animalia asko hiltzen dituzte gero hemen jendeak animalia ho-rietakoren bat erosteko. Proporzioa izu-garria da: Afrikan salerosketarako harra-patzen dituzten 100 animaliatik hamar baino ez dira bizirik iristen.

Eta Euskal Herrian handia al da ani-malien trafikoa?

Espainiako Estatuan ez nuke esango zaletasun handiena dagoen lekua Hego Euskal Herria denik. Hala ere, Irunen, esaterako, afizio nahikotxo dago. Pare bat animalia denda daude espezie exotikoak saltzen dituztenak eta elkarte bat ere badago. Ho-rregatik, besteak beste, Hondarribiko su-gegorriarena sinesgarria egin zitzaigun. Dena den, normalean herrialde beroetan afizioa handiagoa izaten da, espezie tropi-kalek hobeto bizirauten dutelako. ●